


# Gaz Parseko kideek gasbideko obrak gelditu dituzte Larrañen

Burkegiko arkeologi gunea zaintzeko lurpean sartu da espeleologo bat

**Z**uberoako Larrañeko lurraldean gasbidearen aurkako ekintza antolatu zuten Gaz Pars elkarteak kideek atzo, Burkegiko arkeologi gune historikoa «suntsitzen duen obra» salatzeko. Ruben Gomez espeleologo famatua lurpean sartu zen trazaketaren azpian, meategiko galeria zaharretan. Atzo goizean, lanak gelditzea erabaki zuten SNGSO Pabeko sozietateak.

M. ESTEBAN / MAULE



Gasbidearen lanak oso aurreratuak daude leku batzuetan.

BAYO

✓ Azken hilabete hauetan gasbidea trabatzen saiatu dira baina kasu gehienetan jandarmeez zuberotarrak atxilotu egin dituzte.

Gertakari mediatiko honekin batera, Gaz Pars taldea «legerik kanpoko hutsak» bilatzen ari da, gasbidea egiteko Administrazioaren baimena baztertzeko. Izan ere, zuberotarrak konturatu dira trazaketa eta obren artean 500 metroko distantzia dagoela. «Afera honetan ere, beste hainbatetan bezala, legez kanpoko obrak badiela», salatu du Gaz Parsek.

Azken hilabete hauetan, Gaz Pars elkarteak bere ekintzak zabaldu egin ditu, lanak trabatzeko, alde batetik, eta baita ere auziak eginez. Joan zen hilabetean, Jean René Etxegarai taldeko abokatuak adierazi zuen kereilak prestatzen ari direla hautetsi batzuen aurka, «eskusartze delituaren izenean».

Bestalde, Pariseko Administrazioaren eta Zerbitzu Publikoen Erabiltzaileen Elkarteak (ADUA) bere sostengua ekarri zion Zuberoako elkarteari. Kontsumitzaileen talde hau Parisen bertan sostengu ekintzak antolatzeko prest agertu zen GDF gasaren frantses administrazioaren egoitza nagusiaren aurrean. Ildo berean, lehen ministroaren zuzendaritzarekin harremanetan sartzeko asmoa plazaratu zuen ADUAK.

## Mugarik Gabek iazko balantzea eta aurtengo egitasmoak zehaztu ditu


DONOSTIA

Mugarik Gabe gobernu kanpoko erakundeak 1992. urteko balantzea egin eta aurtengo proiektuak zehaztu ditu. Lehen eta Hirugarren Munduaren arteko harremanen alaketaren alde jarduten duen talde honetako bazkideek iazko jardura azaldu eta 1993. urteko ekimenen berri eman dute.

Hirugarren Munduan lanikidetzat proiektuak gauzatzea eta bertako bizilagunen egoeraz sentsibilizazio kanpainak egitea dira elkarte honen helburuak. Iazko programa ildo honetatik joan da, garatu gabeko herrietako bizilagunen problematika bertoko gizartera hurbiltzeko.

1992. urtean 42 erakusketa, 72 hitzaldi eta beste 41 emanaldi eskaini ditu gobernu kanpoko erakundeak. Amerikar indigenismoari buruzko jardunaldiak eta beste ekitaldi batzuk Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan barrena eramandu ditu Mugarik Gabek kontinente haren historia, etnografia eta garapenaren berri emateko.

Ezohizko ekitaldien artean Rigoberta Menchu Bakearen Nobel saridunak egindako bisita azpimarratzekoa da, Guatemalako herri indigenen aldeko aldarrikapenak zabaldu izan dituen militante hau Euskal Herrira ekarri baitzuten Mugarik Gabek. Elkarteak urte honetarako aurikusita dituen egitasmoak agertu ditu.



**TXARO  
OSAKAR  
ARRAIZA**

Gaur dugu egun samina  
Txaro bihotzekoa hil zaiguna  
gazte oraindik, neska samurra  
umore jatorrekoa.  
Gure artetik galdu zaitugu  
batek daki zein bidetan.  
Elkartu artean, Txaro maitea  
zure oroimenari egingo diogu  
gure gogoan kabia.

LAGUNAK



**TXARO  
OSAKAR  
ARRAIZA**

Iruñean, Ekainaren 6an hil zen

Bere ama: Bizenta Arraiza Lana;  
ahizpak: Gloritu eta Cecilia; koinatua: Josu Ardaiz Loiola; ilobak: Jone eta Saioa eta gainontzeko ahaide eta lagunak.

Hileta elizkizuna gaur izango da Nafarroako Obanosen, arratsaldeko 7etan.

Obanosen, 1993ko ekainaren 8an

## HILDAKOAK

### ARABA

- GASTEIZ Victor Salazar Mahave, 81 urte. Jesus Agorreta Lorea, 46 urte.
- MURGIA Jose Iñiguez de Onsoño Urrutia, 92 urte.

### BIZKAIA

- BILBO Maria Ibarra Etxabe. Jose Altuna Urrutia, 83 urte. Rafaela Roldan Rincon, 80 urte. Ramon Gardoki Elorriaga, 85 urte. Julian Mendiola Lekue, 89 urte.
- AREETA Julian Mujika San Roman, 58 urte.
- BARAKALDO Antonia Lantaron Gutierrez, 75 urte.
- BASAURI Julian Mendiola Lekue, 89 urte.
- BERANGO Aitzol Ustelo Aginaga, 18 urte.
- GALDAMES Silvestre Berbejillo Gomez, 86 urte.
- MARKINA Miguel Aranburu Espilla, 85 urte.
- SODUPE Concepcion Calvo Ibañez, 82 urte.

### GIPUZKOA

- DONOSTIA Jose Luis Jimenez Nuñez. Miguel Aranburu Espilla, 85 urte. Jose Luis Martinez Merino, 58 urte. Juan Lopetegui San Juan Bautista, 91 urte. Pilar Abad Solana. Maria Elisa Minguez G. Enriquez de Salamanca. Patxi Toledo Etxepare, 29 urte. Maria del Carmen Tormes Asin.
- BEASAIN Jose Zelaia Mendiola.
- BERASTEGI Domingo Arrizurieta Mariñelarena, 24 urte. Jose Ugartemendia Etxeberria, 64 urte.
- BILLABONA Jose Antonio Aranzabe Zelaia, 92 urte.
- ELGOIBAR Jesus Astigarraga Badiola, 43 urte.
- ESKORIATZA Francisco Aranburuzabala Dorronsoro, 84 urte.
- HERNANI David Bilbao Alegria, 74 urte.
- LASARTE Joxe Iguaran Labandibar, 86 urte.
- LAZKAO Josefa Antonia Alkaiaga Murua, 88 urte.

- OIARTZUN Ignacio Arbelaz Rivera, 82 urte.
- PASAIA Agustin Orbegoza Jauregi, 59 urte.

### LAPURDI

- BAIONA Alice Dousdebess Behotegi, 79 urte. Henri Lartigue, 57 urte. Eric Calise, 33 urte.
- BASUSARRI Jeanne Bouhet Darlas, 84 urte.
- EZPELETA Hilario Larronde, 69 urte.
- MIARRITZE Abel Ortega, 88 urte. Andre Herreros, 87 urte.

### NAFARROA

- IRUÑEA Pedro Zapata Lizaur, 83 urte. Ildefonso Garcia Munarriz, 81 urte. Tomas Goni Sagues, 68 urte. Jose Luis Lander Ulibarri, 61 urte. Maria Jesus Eder Izal, 71 urte. Nicolas Ramon Inurrieta Martirena, 67 urte.

### NAFARROA BEHEREA

- GARAZI Jean Camille Senpe, 85 urte.

## ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:  
ARRATSALDEKO

4ak ARTE: (943) 46 90 22

4etatik 7etara: (943) 37 15 45